



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urtarrilaren 24a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- 21/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Akats zuzenketa (6. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera. Aurkeztutako zuzenketak (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2012ko azaroaren 16ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa (134.3.a. artikulua)

Zioak: Gaur egun indarrean dagoen legearen arabera, emakida-hartzaile jakin, bakar eta zehatz bat Lurraren Kontribuzioa ordaintzetik salbuestea lege iruzurra da. Gaur egun, indarrean dagoen legearen arabera, Donejakue Bideko eta Pirinioetako autobideen emakida-hartzaileak beharturik daude hirilurraren gaineko kontribuzioa ordaintzera. Ez dugu ikusten berdintasun-irizpideetan oinarritutako inongo arrazoirik enpresa emakida-hartzaileak ordaintzeko betebeharetik salbuestea justifikatzen duenik.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. bis idatz-zati berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarrena. 134. artikulua. 4.

Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko balorazio partzialeko ponentzia bat onetsiko du, azpiegitura horiei dagokien lurzorua baloratzeko, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34. artikuluari jarraikiz.

Ponentzia horrek ezarriko ditu “itzaleko bidesaria” deiturikoak ukitzen dituen Nafarroako autobideei balio bat esleitzeko metodo eta parametro teknikoak, eta zehaztuko ditu ukitutako udalek aipatu azpiegituren emakida-hartzaile diren enpresei kobratu beharreko zenbatekoak eta horretarako irizpideak.”

Zioak: “Itzaleko bidesaria” deiturikoa aplikatzen zaien autobideen emakida-hartzaile diren enpresek kasuko udalei ordaindu beharreko Lurraren Kontribuzioaren zerga-kuota zehaztea.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren artikulu bakarrari beste idatz-zati bat, seigarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Seigarrena bis. 170.1. artikulua.

“Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreala izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da kostu erreala dela haren exekuzio materialaren kostua, kasuko proiektuan agertzen diren osagai guztiak barne, lizentziaren edo erantzukizuneko aitopenen xede den eraikuntza, instalazio edo obrarekiko berezitasunik edo berezko nortasunik ez badute. Ondokoak ez dira zerga-oinarriaren parte izanen: Balio Erantsiaren gaineko Zerga; araubide berezietako gisa bereko gainontzeko zergak; eta eraikuntzari, instalazioari edo obrari lotutako toki izaera publikoko gainontzeko ondare-prestazioak, prezio publikoak

eta tasak; profesionalen ordainsariak; kontratistaren enpresa-irabaziak, eta aipatu exekuzio materialaren kostuaz bestelako edozein kontzeptu.”

Zioak: Hobekuntza teknikoa, zerga-oinarria zehazten duena; izan ere, aurreko formulazioak arazoak eragin ditu eta jurisprudentzia ugari eta kontrajarriaren xede izan da. Auzitegi Gorenaren azken erabakietatik eratorritako definizioa jaso eta egokitu da.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko artikuluko bakarreko 7. idatz-zatiaren testua aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Zazpi. 171.1. artikulua.

“1. Aginduzko lizentzia ematen denean, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean, edo, lizentzia eskatu, eman edo ukatu edota erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu baino lehen, eraikuntza, instalazioa edo obra hasi bada, konturako behin-behineko likidazioa egiten da, eta honela zehaztuko da zerga-oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontua aintzat hartuta, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia, aginduzko betebeharra denean.

b) Aurrekonturik ez dagoen kasuetan eta zerga ordenantzak hala aurreikusten duenean, hartan ezartzen diren indize edo moduluak aintzat hartuz.”

Zioak: Hobekuntza tekniko horren bidez zehazten da lizentzia eskatzeko alde aurretiko aurrekontua dagoenean, hori dela kontuan hartu behar dena, zerga-oinarria kostu erreala baita. Aurrekonturik ez dagoenean bakarrik aplikatuko dira indize edo moduluak.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren artikuluko bakarrari beste idatz-zati bat, zazpigarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Zazpigarrena bis. 174. artikulua.

“1. Honakoak dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

a) Lurzatien eskualdaketetan edota lur horiek erabiltzeko eskubide errealak, jabaria mugatzen duenak, dirua irabazteko asmoz sortu edo eskualdatzen direnean, lurzattia erosten duen edo kasuko eskubide erreala eratu edo eskualdatu egiten zaion pertsona fisiko edo juridikoa edota Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 25. artikuluan aipatutako entitatea.

b) Lurzatien eskualdaketetan edota lur horiek erabiltzeko eskubide errealak, jabaria mugatzen dutenak, sortu edo kostu bidez eskualdatzen direnean, lurzattia eskualdatzen duen edo kasuko eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edota Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 25. artikuluan aipatutako entitatea.

2. Aurreko idatz-zatiko b) lerrokadan aipatzen diren kasuetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibo izanen da lurzattia erosten duen edo kasuko eskubide erreala eratu edo eskualdatu egiten zaion pertsona fisiko edo juridikoa, edota Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 25. artikuluan aipatutako entitatea, zergaduna Espainian bizilekua ez duen pertsona fisikoa baldin bada.

3. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren 2. artikulua-ren aplikazio esparruan sarturik dauden zordunek arau horren beraren eranskinaren 3. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraikiz etxebizitza ordainean ematean egiten dituzten eskualdaketetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da ondasun higiezinak eskuratzen duen entitatea, eta horrek ezin izanen dio ordaindutako zerga betebeharren zenbatekoa eskatu zergadunari.”

Zioak: Estatuko legedian ezarritako araudi bera aplikatzea izaera urbanoko lursailenen balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordaintzaileari dagokienez, halako moduz non eskualdatzailea izan dadin, oro har, zerga betebeharrak jasaten dituen irabazi asmoz egiten diren eskualdaketetan, eta ez, gaur egun bezala, eskuratzailea, zergadunaren ordezkari gisa. Diskriminazio egoera gertatzen da Nafarroatik kanpo higiezinak eskuratzen dituzten aldean, eta, bereziki, etxebizitza-eskuratzaileei dagokienez; izan ere, ustekabearen harrapatzen ditu foru araubidearen berezitasun horrek, eta gastu horri aurre egin behar izaten diote, eta askotan sustatzailearekin gatazka sortzen da, uko egiten baitio ordaindutako zenbatekoa itzultzeari. Bidezkoa da alde ahulenari babesa ematea, zeina eskuratzailea izaten baita, eta eskualdatzailea izatea eskualdatzetik eratorritako betebeharrari eta

haien likidazioari eta ordainketari aurre egin behar diena.

6. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste idatz-zati bat, zazpigarrena ter, gehitzeko zuzenketa.

“Zazpigarrena ter. 185. artikulua kentzea.”

Zioak: Hutsik dauden etxebizitzaren jabeen interesen gaintik, administrazio publikoek herritarren eskubideak ziurtatu behar dituzte. Kasu honetan, oinarriko eskubide bat, zeina etxebizitza eskubidea baita; hala, hutsik dauden etxebizitza-poltsa horien alokairu soziala lagundu behar dute.

7. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste idatz-zati bat, zazpigarrena quater, gehitzeko zuzenketa.

“Zazpigarrena quater. 187. artikuluko c) letra kentzeko zuzenketa.”

Zioak: Ez du zentzurik lege batean soldaduskarren edota ordeko gizarte zerbitzuaren aipamena egiteak, hamar urte baino gehiago baitira bertan behera utzi zirela. Horrenbestez, zuzenketa soil bat besterik ez da.

8. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste idatz-zati bat, zazpigarrena quinquies, gehitzeko zuzenketa.

“Zazpigarrena quinquies. 189. artikulua.

1. Zerga honen kuota zerga oinarriari karga-tasa aplikatzen sortuko da.

2. Zerga honen karga-tasa portzentaia bat izango da, ez dena inoiz izanen udal bakoitzean lurraldeko Zergaren ordainarazpenerako indarrean dagoen tasaren ehuneko 100 baino gehiagokoa, azken tasa hori 139.2 artikuluan ezarritakoaren arabera ezarria delarik.”

Zioak: Etxebizitzarako eskubidea pertsona guztientzako eskubidetzat hartu behar da. Ezin dugu ulertu nola nafar askori arazotsu gerta dakiekeen

etxebizitza duin bat eskuratzea, hainbeste etxebizitza huts egonda.

9. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste idatz-zati bat, zazpigarrena sexies, gehitzeko zuzenketa.

“Zazpigarrena sexies. 190. artikulua.

1. Zerga lehenbiziko aldiz sortuko da hurrengo artikuluko 3. zenbakian agertzen den jakinarazpenetik hiru hilabete igarotakoan, sail honetan agertzen den etxebizitza hutsari eusten baldin bazaio.

2. Gerora, urte bakoitzeko lehenbiziko egunean sortuko da zerga.

3. Kuotak sehilekoak izanen dira, sehileko naturalka, eta horien barruan, zatiezina eta txikiezina.

4. Subjektu pasiboek zera eskatu ahal izanen dute, dagokion espedientearen biderapenaren bitartez: etxebizitza bete denetik aurrerako aldiari dagokion kuotaren heineko zatia itzultzea.”

Zioak: Etxebizitzarako eskubidea pertsona guztientzako eskubidetzat hartu behar da. Ezin dugu ulertu nola nafar askori arazotsu gerta dakiekeen etxebizitza duin bat eskuratzea, hainbeste etxebizitza huts egonda.

10. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste idatz-zati bat, zazpigarrena septies, gehitzeko zuzenketa.

“Zazpigarrena septies. 191. artikulua.

“1. Hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa egin beharko dute udal eta kontzejuek, zergaren ordainarazpenerako.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, 186. artikulua aipatzen dituen pertsonak eta erakundeak aitortzea aurkeztu beharko dute, kapitulu honetan xedatutakoaren arabera hustzat jo daitezkeen etxebizitzaren berri emateko, zerga ezartzeko erabakia argitaratu eta hilabeteko epearen barruan. Aitorpenik aurkeztu ezean, edo aitortpenak akastunak badira, toki erakundeak, bere kabuz edo salaketaren ondorioz, erregistroan sartuko ditu aurreko lerrokadan aipatzen diren etxebizitza huts egonda.”

zitzak, interesdunari entzunen zaion espedientea izapidetu ondoren.

3. Erregistroan sartu ondoren, toki entitateko buruak titularrari jakinaraziko dio zerga sortzeko hiru hilabeteko epea has dadin, aurreko artikuluko 1. zenbakiak xedatutakoarekin bat.

4. Zerga arautzeko ordenantzak, edonola ere, erregistroko alta eta bajen sistema arautuko du.”

Zioak: Etxebizitzarako eskubidea pertsona guztientzako eskubidetzat hartu behar da. Ezin dugu ulertu nola nafar askori arazotsu gerta dakiekeen etxebizitza duin bat eskuratzea, hainbeste etxebizitza huts egonda.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari xedapen indargabetzaile bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen indargabetzailea. Indargabeturik uzten da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 136. artikuluen d) letra.”

Zioak: Justifikaziorik ez duen erlijioen aldeko pribilegio bat ezabatzea.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren zioen azalpenari azken lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Aukera baliatu da araudia aldatzeko izaera urbanoko terreneen balio gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasiboari dagokionez, halako moduz non Estatuan indarrean dagoen araudi bera aplikatuko baita. Hala, eskualdatzailea izanen da, oro har, zerga betebeharrak jasanen dituena irabazi asmoz egiten diren eskualdaketetan, eta ez eskuratzailea, zergadunaren ordezkoko gisa, gaur egun gertatzen den moduan. Xedea da konponbidea ematea Nafarroatik kanpo higiezinak eskuratzeko dituztenen aldean, eta, bereziki, etxebizitza erostunekiko, gertatzen den diskriminazio egoerari; izan ere, ustekabeen harrapatzen dituzten araubidearen berezitasun horrek eta gastu horri aurre egin behar izaten diote, eta askotan eskualdatzailearekiko gatazka sortzen da.”

Zioak: Zazpigarrena bis artikulua berria gehitzeko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

21/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legean akats bat aurkitu denez (legea 2012ko abenduaren 27ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), ondoko zuzenketa hau egin da:

Lehen xedapen gehigarrian, 9. idatz-zatian, lehenengo lerrokadan (34. orrialdeko eskuineko zutabean), honakoa dio:

“... 12. atalean ...”

Honakoa esan behar du:

“... 11. atalean ...”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Foru Lege proposamen honi aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera." Proposamen hori 2012ko ekainaren 15eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste artikulu bat, lehenbizikoa, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"1. artikulua: Idatz-zati berri bat gehituko zaio Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 86. artikuluari. Hona edukia:

4. Udaltzatzen gehiengoak onetsi ahalko du bere Erregelamendu Organikoan jasotzea zinegotzien botoaren eskuordetze kasuak, ondoko egoeretan:

a) Amatasuna dela-eta bilkuretara joaterik ez duen zinegotziak edo kontzejukideak bere botoa beste zinegotzi edo kontzejukide baten esku utzi ahalko du, erditzearen ondorengo sei asteetan.

b) Behar bezala egiaztatutako ospitaleratze baten edo gaixotasun larri baten ondorioz bilkuretara joaterik ez duten zinegotziek edo kontzejuki-

deek beren botoa beste zinegotzi edo kontzejukide baten esku utzi ahalko dute."

Zioak: Udal autonomia errespetatzea zinegotzien edo kontzejukideen botoaren eskuordetzearen gaineko erabakia hartzerakoan. Foru Legeak marko bat ahalbidetzen du, eta udal bakoitzak bere egoerara egokitu ahalko du, horretarako bere erregelamendu organikoa egokituta.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Botoaren eskuordetzea erabili ahalko da Udaltzatzen bilkuretan bakarrik; ez, ordea, batzordeetan, lan bileretan edo bozketa eskatzen duen beste ezein egoeratan".

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testua gehitzeko zuzenketa. 4. idatz-zatiko a) epigrafeari ondoko testua gehitzea:

"Aitatasunagatiko baja ez da kontuan hartuko botoaren eskuordetzea baimentzeko".

"Haurdunaldia ez da gaixotasuntzat hartzen, eta ez dakar nahitaez arriskurik berarekin; hori dela eta, medikuak behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, ez da izanen botoa eskuordetzeko kausa".

"Edoskitzea ez da arrazoi nahikoa botoaren eskuordetzea baimentzeko".

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. idatz-zatiaren b) letrari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

“Gaixotasun arruntagatiko baja ez da arrazoi nahikoa izanen botoaren eskuordetzea baimentzeko”

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“c) Zinegotzi edo kontzejukide batek ezinen du eskuordeturiko boto bat baino gehiago izan.”

Zioak: Zenbait karguk gehiegizko ahalmen erabakitzailea izatea saihestea.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. idatz-zatiaren azken lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Lerrokada horren azken esaldia kenduko da: “bai eta delegazioaren iraupena ere”

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proposamenaren azken lerrokadari testua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Botoa beste baten esku uzteko eskabidea idatziz aurkeztu beharko zaio kasuko udalean edo kontzejuan eskumena duenari. Idazkian zehaztu egin beharko da boto-delegazioa nork egiten duen eta nork hartzen duen.

Botoa beste baten esku uztea eskatzen duen pertsonak hala eskatu beharko du joan ezin den osoko bilkura bakoitzerako, betiere bilkura horretara joateko ezintasuna justifikatzen duen mediku arduradunaren ziurtagiriaz lagunduta.”

8. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa:

“2. artikulua: Eskuordetutako botoen kopurua ez da izanen, inolaz ere, udalbatza osatzen duten zinegotzien edo kontzejukideen erdia baino handiagoa.”

Zioak: Botoaren eskuordetzeak ez dezan hutsaldu edo baldintzatu udalbatzaren eztabaida; horretarako, ziurtatzen da udalbatzaren erdia bertan egonen dela.